

BAGDADEKO AURPEGIAK

Juan Kruz Igerabide

Erein, Donostia, 2007

Bagdadarren zauriak

Ipuin, edo nobela, baten hasierak sarritan markatzen du giroa. Herri ipuinetan, esaterako, beste garai eta errealtate –edo fantasia- batera eramaten gaituzten bezala oraingo honetan, Juan Kruz Igerabidek bete-bete sartzan gaitu egungo Bagdaden: “Lehergailu batek nire familia ia osorik suntsitu baino mende asko lehenago,” eta, ondoren, XXI. mende hau baino asko lehenago bizi izan zen Ali Khjjam poeta, filosofo... gaztearen bizitzaz hitz egiten hasten da nobela honen narratzailea, Ali Khjjam horren ondorengoko neskatxa bat, bere familia ia guztia galdu duen Jasmina gaztea.

Liburuko 36 kapituluetan bi istorio, agian bi historia esan beharko genuke, kontatzen zaizkigu. Bata Jasminarena, umezurtz bere anaia txikiarekin batera umezurztegi baino presondegia zaion etxe batean bizi dena bonben arteko Bagdaden; bestea, Ali Khjjamen historia, Erdi Aroko Bagdad bizi, jakintsu eta aberatsean bizi izan zen Ali sufi santua. Bi istorioen arteko lotura liburuko lehen kapituluaren adierazten du Jasminak, bere arbasoaren historiari hasiera ematen dionean; geroago, bi narratzaile ezberdin erabiltzen ditu Igerabidek liburu osatzen duten bi istorioetarako, batean, lehen pertsonan gaur egungo gertakarien berri emate digun Jasmina dugu, bestean, hirugarren narratzaile orojakilea, Ali Khjjamen berri emango diguna.

Jasminaren historia gaur egungoa da, Bagdad inbadituarena, kalean tiroketak eta bonben eztandak entzuten diren hiriarena. Jasmina eta Alik –arbasoaren omenez izen hori jarri baitzioten- familia guztia galdu eta umezurztegian egon behar dute. Jasminak egungo errealtate bortitzaren berri emateaz gain etxean, txikitatik, jasandakoa ere azalduko du poliki-poliki. Irakurleak susmoa du familiak asko sufritu duela, tratu txarrak, bortizkeria, alkohola... eta amaren galerak, bai eta Aliren egoera berak badutela zerikusia bortizkeria horrekin.

Ali Khjjamen istorioa ere bake eta gudei buruzkoa da, inbidia eta adiskidetasunarena. Ali Khjjam jakintsuak urteetan lagundu zion Omar ben Saadi kalifari, anaiak hankak moztu eta begiak kendu zizkion kalifari; eta horrela, epaile gorena izango da Ali, kalifaren aholkularia, kobazulo batean bizi den sufi santua... baina, XXI. mendean bezala bortizkeria –mota eta estilo ezberdinetakoa- presente dago.

Bagdadeko aurpegiak lanak irakurlea berehala harrapatzen du. Kontatzen diren bi istorioak erakargarriak dira, agian batetik bestera salto egin behar etengabe horrek neka dezake irakurlea ez baitago bi istorioak lotzen dituen hari garbirik. Jasminaren kontaketa bide bat egiten du eta Ali Khjjamen istorioak, honen gogoetek, beste bat. Hala ere, istorio biek harrapatzen zaituzte, narratzean erabilitako bizitasunak aurrera egitera animatzen zaitu: “Ez nauzue harrapatuko, zerriak, ilundu du, oso ilundu ere, eta ez nauzue aurkitu. Pixka bat lo hartu du, gogor jarri naiz, bina gero herrialde berdea amestu dut eta askatu egin naiz, eta orain esna nago. Garbigailutik irten, korridorean barrena ilunpetan aurrera joan, eta ume txikiaren gelara igotzen ari naiz zaintzailea zurrungaka ari da; anaiaren ohera hurbiltzen naiz; ez dago, Ene Ala!, ez dago, ez dago” (120. or.). Izan ere liburuak badu intriga puntu bat: Jasmina eta Aliren etorkizuna zein izango ote den. Badakigu narratzailea, historia kontatzen diguna Jasmina dela, baina ez dakigu zein izango den drama honen amaiera, eta liburu hau drama bat da. Gaur egungo drama.

Amaiera tristea du nobela honek, baina itxaronpetsua: “mutil batek dantza egitera eramane nahi nau. Begietara begira erantzun diot, eta esaten diot zauriak oraindik itxi gabe ditudala, denbora behar dudala.” (171. or.), baina Jasminaren zauriak itxiko dira.

Xabier Etxaniz Erle